

Legutioko Cie Automotiven greba mugagabea abiatuko dute maiatzaren 14an

ALEA :: 08/05/2025

Kaleratu duten lankide batekin elkartasunez mobilizazioak hasiko ditu plantillak datorren astean.

Cie Automotive Goiaín enpresako langileek greba mugagabera joko dute maiatzaren 14an, langile baten kaleratzea salatzeko. Lankidea berriz hartu eta enplegu politikak aldatzeko eskatuko diote enpresari.

ELA sindikatuak deitu ditu grebara Legutioko lantegiko 44 langileak. ELA sindikatuak du ordezkaritza osoa bertan, eta salatu dute enpresaren enplegu politikek arriskuan jartzen dutela lan egonkortasuna.

Cie Automotive euskal multinazionalaren enpresa da Legutioko Goiaín industrialdeko lantegia, eta automobilgintzarako piezak fabrikatzen dituzte, batez ere.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/legutioko-cie-automotiven-greba-mugagabea